## 1. XEDEA

Praktiketako ikasleen medikazioari buruzko akats bat izanez gero egin beharreko jarduerak ezartzea.

## 2. DEFINIZIOAK

**Gaixoaren segurtasunarekin zerikusia duen gertakari bat** gaixo bati behar ez zen kaltea sortu dion edo sortu ahal izan dion gertaera edo inguruabarra da.

### MOTAK

Gertakari kontzeptuaren barruan, dena den, beste kontzeptu zehatzago batzuk bereizten dira, pazienteenganaino iristen diren edota haiei kalterik eragiten dieten kontuan hartuta. Termino hauek dira zehazki:

- **Kuasigertakaria**: Pazienteari kalterik eragin ez dion ustekabeko gertaera edo egoera da, gorabehera hori ez denean pazientearenganaino iritsi, kasualitatez edo garaiz esku hartu delako. Adibidez: *Oker bategatik alergia dion antibiotiko bat agindu zaion paziente baten kasua. Antibiotikoa jartzeko orduan, alergiarik baduen galdetuko zaio ohean bertan. Alergia detektatuta, ez zaio emango alergia dion antibiotikoa.*

- **Kalterik gabeko gertakaria:** Aurrekoa ez bezala, pazienteari iristen zaio gertaera, baina ez dio hautemateko moduko kalterik eragiten. Esaterako, paziente bati beste norbaitentzat agindutako botika bat eman, baina botika horrek kalte edo ondoezik eragiten ez badio.
  *Adibidez: Oker bategatik alergia dion antibiotiko bat agindu zaion paziente baten kasua. Antibiotikoa emateko unean, ez da egiaztatu pazienteak alergiarik ba ote duen. Inor ez da okerraz ohartu, eta alergia dion antibiotikoa eman zaio; ez da ezer gertatu, hala ere. Batzuetan, gertatzen dira halakoak; pazienteak uste du alergia diola sendagai bati, baina ez dio, edo garai batean alergiatzat jo zen erreakzioren bat izan zuen. Kasu honetan, ordea, antibiotiko hori emateak ez du eraginik izan haren osasunean.*

- **Pazienteari kaltea eragin dion gertakaria (kontrako gertaera):** pazienteari kaltea eragiten dion gertakaria da.
  *Adibidez: Aurreko adibidean bertan, demagun pazienteak benetako alergia diola botika bati eta huraxe eman zaiola; horrek erreakzio anafilaktikoa eragin dio pazienteari, eta, bihotza gelditu zaionean eta arnasa hartzeari utzi dionean, hil egin da.*

## 3. EKINTZEN ETA ARDUREN BANAKETA

| ZER | NORK | NOIZ |
|---|---|---|
| Asistentzia-praktikak berez dituen arriskuen berri ematea ikasleei | Practicumeko Prestakuntza eta Ikerkuntzako Pertsonala | Etengabe hauetan: Eskola magistraletan, laborategiko praktiketan/tailerretan eta mintegietan<br>Praktiketako lehen egunean |
| Ikasleei informazioa ematea gertakariak prebenitzeko neurriez eta, istripua izanez gero, zer egin behar den jakinaraztea. | Practicumeko koordinatzailea eta arduradunak | Praktika klinikoekin hasi aurretik. |
| Intzidentzia baten aurrean jarduteko prozedura eta botikak emateko 5 orrialde-markagailu egokiak ikasleei ematea | Practicumeko koordinatzailea<br>Practicumeko arduradunak | Zaintzarako praktiketako hastapenetan / I. Practicumeko hasierako bileran |
| Gertakariaren berri ematea post elektroniko eta telefono bidez zentroko tutoreari eta Unibertsitateko irakasleari | Ikaslea | Gertakaria izan, eta berehala |

| | | |
|---|---|---|
| Gertakarien deskribapen zehatzak azaltzen dituen txostena eskatzea ikasleari | Unibertsitateko erreferentziako irakaslea edo zentroko tutorea | Gertakariaren berri izan, eta 24 orduko epean |
| Gertakarien deskribapen zehatza azaltzen duen txostena egitea (e-Gelan kargatutako dokumentu hau bete: «Praktiketako istripua/gertakaria jakinarazteko barneko txostena») | Ikaslea, tutorearen onespenarekin | Gertakariaren berri izan, eta 72 orduko epean |
| Posta elektronikoz bidaltzea praktiketako koordinatzaileari eta praktiketako erreferentziako irakasleari. | Ikaslea | Gertakariaren berri izan, eta 72 orduko epean |
| Gertakariaren berri ematea zuzendaritzari | Practicumaren koordinatzailea | Gertakariaren berri izan, eta 72 orduko epean |
| Informazio- eta komunikazio-espedientea irekitzeko aukera baloratzea Osakidetzako Aholkularitza Juridikoarekin, egokia bada. | Zuzendaritza | Gertakariaren berri izan, eta 72 orduko epean |
| Gertakariaren analisia eta hobetzeko neurriak sartzea | Practicumeko taldea | Practicuma amaitzean |

## 1. OBJETO

Establecer las actuaciones que se llevarán a cabo ante una incidencia referida a los errores de medicación de estudiantes en prácticas.

## 2. DEFINICIONES

**Un incidente relacionado con la seguridad del paciente** es un evento o circunstancia que podría haber ocasionado u ocasionó un daño innecesario a un paciente.

### TIPOS

Dentro del concepto de incidente podemos distinguir tres tipos, atendiendo a si llegan o no al paciente o si le provocan un daño:

- **Cuasi Incidente:** Acontecimiento o situación imprevista que no ha causado daño al paciente porque no ha llegado al paciente, bien sea por casualidad o por intervención a tiempo.
  *Ejemplo: Podría ser un paciente al que se le prescribe por error un antibiótico al cual es alérgico. Se le va a poner el antibiótico, pero antes de iniciar la administración se hace una comprobación de las alergias preguntándole al paciente a pie de cama. Al detectar la alergia, evita que se le administre el antibiótico al cual es alérgico.*

- **Incidente sin daño:** Se trata de aquel incidente que a diferencia del anterior sí llega al paciente, pero no le provoca daño apreciable. Esto puede ser la administración a un paciente de un fármaco que no estaba prescrito para él, pero no le provoca ningún daño o molestia.
  *Ejemplo: Paciente al que se le prescribe por error un antibiótico al cual es alérgico. Se le va a poner el antibiótico, y en ese momento no se verifica con el paciente sus posibles alergias. No se detecta el error, se le administra el antibiótico al cual es alérgico, y sin embargo no sucede nada. A veces esto sucede, y el paciente cree ser alérgico a un medicamento y no lo es, o en su día tuvo*

*algún tipo de reacción que fue clasificada como alergia. En este caso, sin embargo, la administración de ese antibiótico no ha supuesto un impacto en su salud.*

- **Incidente con daño (Evento Adverso):** se trata del incidente que causa un daño al paciente. *Ejemplo: Siguiendo con el ejemplo anterior, supongamos que se le administra un antibiótico para el que el paciente tiene una verdadera alergia, de tal forma que el paciente sufre una reacción anafiláctica, con parada cardiorrespiratoria, que le acaba provocando la muerte.*

## 3. DISTRIBUCIÓN DE RESPONSABILIDADES

| QUÉ | QUIÉN | CUÁNDO |
|---|---|---|
| Informar al alumnado de los riesgos implícitos en la práctica asistencial | PDI Practicum | Continuamente en: Clases magistrales, prácticas de laboratorio/talleres y seminarios.<br>Primer día de prácticas |
| Informar al alumnado sobre las medidas de actuación y prevención ante una incidencia | Coordinador y responsables de Practicum | Antes de comenzar las prácticas clínicas |
| Entregar al alumnado el procedimiento de actuación ante una incidencia y el marcapáginas 5 correctos para la administración de fármacos | Coordinador de Practicum y Responsables de Practicum | Reunión Introducción a la práctica del cuidado y Practicum I |
| Comunicar la incidencia a través de e-mail y tfno. a la tutora de centro y profesora o profesor de la Universidad | Estudiante | Inmediatamente después de la incidencia |
| Solicitar al estudiante informe con la | Profesor/a de referencia de la | En las 24 horas siguientes a tener |

| | | |
|---|---|---|
| descripción detallada de los hechos | Universidad o Tutor/a de centro | conocimiento de la incidencia |
| Elaboración de informe con la descripción de los hechos (rellenar el documento colgado en e-Gela “parte interno de notificación de accidente/incidente en prácticas”) | Estudiante con la aprobación de la tutora o del tutor de centro | En las 72 horas siguientes a la incidencia |
| Envío por email al Coordinador de prácticas y profesor de referencia de las prácticas | Estudiante | En las 72 horas siguientes a la incidencia |
| Notificación de la incidencia a la Dirección | Coordinador de Practicum | En las 72 horas siguientes a la incidencia |
| Valoración de apertura de expediente de información y comunicación al servicio de Asesoría Jurídica de Osakidetza, si procede. | Dirección | En las 72 horas siguientes a tener conocimiento de la incidencia |
| Análisis de la incidencia e introducción de medidas de mejora | Equipo de Practicum | Al cierre de las prácticas |